

IX. LEGEGINTZALDIA
2015-2019 LEGEALDIA
UXUE BARKOS BERRUEZOren
INBESTIDURA-HITZALDIA
(GEROA BAI)

LANDA GARAPENA

Alor honetan toki-garapenerako egiturak indartzea nahitaezkoa da, eta Gobernuarekin lankidetzan aritzea ere bai. Gainera, etorkizuneko Gobernuak Nafarroa-Euskadi-Akitania euroeskualdean berriz sartzeko asmoa dauka, eta Landa Garapen Iraunkorreko Plana berrikustea ere bai, Europar Batasunean zenbateko maniobramarjina daukagun aztertuz, parametro argi batzuk oinarri hartuta; besteak beste: elikagaien balio-kate osoan presente dagoen lehen sektore berritzaileari eta dibertsifikatuari babesa ematea; lehen sektoreko langileei prestakuntza erraztea eta produktu ekologikoen eta tokiko arrazen garapena eta egonkortzea bultzatzea.